

Ordizian, 2017ko martxoaren 6an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Iturrioz Gotor
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV
Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Jon Ander Caballero.

Igor Eguren Izagirre ere bertaratu da eta adierazi duenez, Osoko Bilkuran izendapen berriaren kontu eman arte, izendapenaren dokumentua ez zela indarrean sartzen uste zuelako azaldu da bera.

Idazkariak, dokumentua onartu eta jakinarazten denetik ondorio guztiak sortzen dituela erantzun dio.

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2017ko otsailaren 20ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - Aurrekontuen Aurreproiektuari ekarpenak
 - Hotelaren proiektua
 - Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguneko adierazpena
- 4.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:10



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2017ko otsailaren 20ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2017ko otsailaren 20ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 8 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 41.314,84-€

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

- 6000 €tik beherako fakturak.

6,7, 81 eta 82 zenbakidun zerrenden berri eman da.

Kopurua guztira: 89.262,89-€

Fakturei oniritzia eman zaie.

.....

- 2017ko Aurrekontuen Aurreproiektuari ekarpenak.

EH-BILDU (Eguren Jn) euren ekarpenak Osoko Bilkurara bertara eramango dituztela esan du.

ORDIZIA ORAINek ere ez du ekarpenik egin.

.....

- Hotelaren proiektua

Alkate jaunak interesatuekin izandako bilera azaldu du..

Eguren jaunaren ustez arriskutsua da zuzenean enpresari bati esleitzea, egokiena konkurtso bidez esleitzea litzatekeela deritzo.

BIPB (Birgaitze integralerako plan berezia)PERI Udalak bultzatu beharko luke.

.....

- Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguneko adierazpena

Ordizia Orain eta EH Bildu alderdi politikoek, hurrengo Osoko Bilkurarako, testu bateratu bat adostu beharko litzatekeela adierazi dute. Hala ere, Sukia andereak, ordu erdiko geldialdia, martxoaren 8a, asteazkenerako proposatzen dela dio, herriko plazan 12etatik 12:15era hain zuzen.

Prensa oharra aterako da elkarretaratzera dei egiteko.

.....

4.- Galde-eskeak.

Ez dago



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.